

“Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan) nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko”

UDALTOP 2010 (www.udaltop.com)
Udaletako euskara zerbitzuen II. topaketak

2009ko maiatzean egindako UDALTOP-en balorazioa egiterakoan, bertaratutako guztiei galdetu zitzairen ea hurrengo urterako zein gai nahi luketen izatea aztergai. Erantzunen artean, “gazteak” gaia nabarmendu zen. Horien horrela, UDALTOP 2010 gai horren jiran antolatzen hasi ginenean, ordea, gaia mugagabeegia iruditu zitzaigun eta pittin bat zedarritu egin genuen. Alde batetik, muga oso lausoak dituen “gazteak” adin-tartean 12-18ko nerabeen multzoa lehenetsi genuen. Beste alde batetik, nerabeen jardun-eremu guztiez hitz egin ordez, nerabeek aisian eta lagunartean baliatzen dituzten hizkuntzez aritzea iruditu zitzaigun zentzuzkoagoa.

Buruan bagenituen azpi-galderak hauek ziren: zeintzuk dira udal batek gai horren inguruan dituen eragin-eremuak? Zeintzuk dira lehentasunezkoenak? Zein planteamendurekin lan egin behar da bakoitzean?... Eta galdera horiei erantzuna bilatzerakoan, zer esaten digu teoriak? Ba al da ikerketa interesgarririk galdera horien inguruan? Eta zeintzuk dira esperientzia interesgarriak?

Teoriaren iturritik eman zuen berea Pello Jauregi irakasleak (HUHEZI) "Esku hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta" lanarekin. Ikerketaren isuria elikatu zuten Jon Aizpuruak (HPS) "Gizarte-Sareak + Euskara 2.0" lanarekin eta Asier Basurtok (Soziolinguistika Klusterra) "Gazteen erabileraren korapiloa begi-bistan" ikerlanarekin.

Plazaratutako praktika onak, berriz, hauek izan ziren: "Euskararekiko motibazioan eragin: nerabeentzako kontsumo masiboko egitasmoak" Aritza Escandon (Kultur Kabia), "HEZHIZ: HIZkuntza HEZiketarako dinamizazioak" Jaime Altuna (Urtxintxa), "Glisseguna: ipar euskal herriko gazteei zuzendua den surf/skate eguna" Ramuntxo Echeberri eta Estelle Goñi (Seaska), "Gazteria eta Euskara zerbitzuen elkarlana nerabeen aisialdian eta hizkuntza ohituretan eragiteko. Bermeoko esperientzia" Maite Alvarez eta Iñaki Lopez (Bermeoko Udala), "Nerabe eta gazteen kultur kontsumoa: GAZTEZULOren esperientzia" Alberto Irazu (Gaztezulo) eta "Maitatu euskaraz" Ttakun Kultur Elkarteak.

"Sare sozialak, nerabeak eta euskara" elkarrizketak eta euskararen herriko zazpi herrialdeetatik etorritako 120 kide inguruk talde-lanean egindako hausnarketek osatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Eudelek diruz laguntzen duten topaketa honen II. edizioa.

Ondorio nagusia da urte askorako lana geratzen zaigula Udalotako euskara zerbitzuoi. Lan hori egiteko, berriz, ideia orokor batzuk eta bi lan-ildo nagusi atera ziren: udal departamentuetatik eskaintzen den aisia euskalduntzeko ideiak eta udal departamentuetatik kanpo udalerrian eskaintzen direnak euskalduntzeko ideiak.

Ideiak dira, baina ideiak ere behar izaten dira.

Iñaki Arruti Landa